


Garatxoak

Jabier Agirre*

Garatxorik gehientsuenak onberak dira berez eta denborarekin desagertu egiten dira, baina behin edo behin molestoak edota antiestetikoak gerta daitezke duten kokapenagatik.

Garatxoak arazo dermatologikorik usuenetariko bat izaten dira, eta bere bizitzako uneren batean edo bestean garatxo bat edukitzetik ia inor ez dela libratzen esan daiteke. Hogeita hamarretik gora garatxo desberdin daude, bakoitza birus-mota desberdin batek sortua, eta guztiak gizakiarentzat espezifikoak dira. Animaliek beren garatxo-mota bereziak dituzte, baina ez gizakiak kutsa ditzake animaliak, eta ezta alderantziz ere.

Garatxoaren birusaren mikroargazkia. Hogeita hamarretik gora garatxo desberdin daude, bakoitza birus-mota desberdin batek sortua, eta guztiak gizakiarentzat espezifikoak dira.



Eta zein da, bada, arazo dermatologiko hau horrela ugaltzearen arrazoia? Larruazalean sortutako zauri txikietan barrena kutsatzeko erraztasun ikaragarria. Baina ez dago kezkatzeko arrazoirik. Ia garatxo guztiak onberak dira, portzentaia txiki bat minbizi bihur daitezkeen arren. Baina beti dira kantzer edo minbizi ez-inbadi-tzaileak, senda daitezkeenak.

Larruazala birusak infektatu ondoren, zelula infektatuak oso azkar ugaltzen dira. Zona edo une jakin batean piltzen dira eta zona hori "loditu" edo "gizentzen" denean garatxoa sortu da. Tamainaz 2 mm-tik 2 cm-ra bitartekoak izan daitezke, eta gehienbat infekzio-arriskuko gorputz-zatietan agertu ohi dira, alegia eskuetan, oinetan, hanketan eta aurpegian.

Hain usuak direnez, eta era berean ikuspegi estetikitik hain molestoak, herriaren "jakinminak" hainbat erre-medio proposatu izan ditu garatxoak desagertarazteko, baina horietako bakarra ere ez da zientifikoki demostratu eraginkorra denik. Ez da ahaztu behar, hala ere, garatxoak, birus batek sortuak direla, gripea bezalatsu, eta honekin gertatzen den bezala, inolako tratamendurik jarri gabe ere, azkenerako sendatu egiten direla.



Garatxoak desagertarazteko metodo asko daude, baina horietako batzuk, substantzia kaustikoak erabiltzea adibidez, ez dira ia proposatu ere egiten gaur egun.

Hori argi eta garbi frogatua geratu zen duela urte batzuk, dermatologotalde batek garatxoak zituzten lau pertsona-multzo bakoitzari tratamendu desberdina ezarriz aztertu zituztenez. Batzuk petrikilo batengana joan ziren, beste batzuei plazebo bat eman zitzaizen (tratamenduan inolako eraginik ez duen substantzia bat alegia, nahiz eta pazienteak hori jakin ez), hirugarren multzokoek ez zuten tratamendurik eta laugarrenari tratamendu medikoa jarri zitzaion. Emaitzak oso argiak izan ziren: aurreneko hiru taldeak denbora berean sendatu ziren; laugarren taldea lehenago sendatu zen.

Horrek honakoa esan nahi du: garatxoak dituzten hiru pertsonatik bik inolako tratamendurik gabe urte batzuen buruan galdu egingo dituztela. Gainera, geratzen den beste heren horretatik, erdia baino gehiago berez sendatuko da beste urte-pare baten buruan.

Zer egin dezake, berez (hau da, tratamendurik gabe) garatxoekin segitzen duen pertsona horrek? Medi-



kuarengana jo dezake, baldin eta bere kokapenagatik garatxoak moles-
tiak ematen badizkio, edota bere
tamaina eta lekuagatik oso estetiko-
ak ez badira eta horrexegatik desa-
gertarazi egin nahi badira.

Garatxoak desagertarazteko metodo
asko daude, baina horietako batzuk,
substantzia kaustikoak erabiltzea adi-
bidez, ez dira ia proposatu ere egi-
ten gaur egun. Zabalduagoa dago
Duofil izenekoa erabiltzea, larruaza-
lean aplikatzeko moduko substantzia
hain zuzen ere, eta astebetetik hiru
asterainoko tratamendua egin ondo-
ren, garatxoa desagertu egin ohi da.
Beste metodo bat nitrogeno likidoa
erabiltzea da, eraginak azkarragoak
dituelako. Nitrogenoa garatxoaren
gainean aplikatzen da, ez du inolako
minik ematen, eta nitrogenoaren
eraginez zonatxo bat izoztu egiten
da, azkenean garatxoa lehortu egiten
delarik.

Garatxo-mota ohizkoetan ondore-
ngoak daude:

- * Garatxo arrunta. Haragi-kolore-
koa, azala nahikoa zimurra du eta
hau da tamainaz handiena. Edozein
adinetan ager daiteke, baina umetan
ikusten da gehienbat; eskuetan
batez ere. Ez du minik ematen eta
tratamendurik gabe desagertzera
irits daiteke.
- * Oinazolako garatxoak. Biribilak dira,
azal zimurrekoak, eta oinolan eta
oinetakoa behatzetan agertu ohi
dira. Garatxoa estaltzen duen lar-
ruazala oso gogorra da, eta asko-
tan kailuarekin nahas daiteke. Pre-
sioaren aurrean sentiberak dira

Aholkuak

- * *Ez ibili oinutsik gimnasio, dutxa
edo igerileku publikoetan.*
- * *Garatxo kontagioso edo kutsa-
korrak dituzten pertsonekin
kontaktu edo ukipen fisikorik ez
eduki.*
- * *Garatxorik ez arraskatu edo
hatz egin; inguruko larruazalera
hedatu edo barreia baitaiteke.*

eta oina lurraren gainean apoiatze-
an (hau da ibiltzean) mina agertzen
da. Hilabete batzuen buruan desa-
ger daitezke, baina normalean tra-
tamendu mediko edo kirurgiko
egokirik gabe ez dira desagertzen.

- * Garatxo planoak (lauak). Oso txi-
kiak izaten dira, lisoak eta haragi-
kolorekoak. Umetan edo adoles-



zentetan agertu ohi dira gehienbat,
aurpegian, lepoan, eskumuturrean
eta belaunetan. Normalean talde-
ka agertzen dira, harramazka edo
zauri baten luzera guztian zehar
(hortik sartu baitzen gorputzera
birusa). Askotan peka edo orizte-
kin nahasten dira. Berez desager
daitezkeen arren, garatxo-mota
hau oso setatsua izaten da trata-
menduarekiko.

- * Garatxo filiformeak, hari-for-
makoak. Garatxo bigunak dira,
meheak eta puntu eta mutur go-
gorra dutenak. Aurpegian, lepoan,
kokotsean edota betazaletan ager-
tu ohi dira, bakarka edota taldeka
bilduak. Ukitzen ez badira berez
desagertzen dira, baina agertzen
diren tokietan agertzeagatik nor-
malean tratatu egiten dira, batipat
kirurgikoki erauziz.
- * Garatxo anogenitalak edo papiloma
puntazorrotzak. Helduengan ager-
tzen diren garatxo berezi hauek
azalore-modukoak dira, oso azkar
hazten dira eta sexu-harremanen
bidez harrapatu ohi dira (ez beti,
hala ere). Berez desager daitezke,
baina berriz infektatzea ere posible
da eta modu edo biderik seguruena
medikuarengana joatea da, honek

arazoa ebaluatu eta tratamendurik
egokiena gomenda dezan. Nor-
malean garatxoaren gainean subs-
tantzia bat jartzen da, lehortzen
utzi eta sei orduren buruan erreti-
ratu egiten da. Prozedura hau erre-
pikatu egiten da hamar-hamabost
egunero, garatxoa desagertzera
lortu arte. Zenbait kasutan beste

Tamainaz 2 mm-tik 2 cm-ra bitartekoak
izan daitezke, eta gehienbat
infekzio-arriskuko gorputz-zatietan
agertu ohi dira, alegia eskuetan, oinetan,
hanketan eta aurpegian.

metodo batzuk (erauzketa kirurgi-
koa, elektrokoagulazioa edo krio-
terapia) ere erabiltzea beharrezkoa
izan daiteke.

- * Azkazaletako garatxoak. Ume eta
adoleszentetan ikusten dira hauek,
azkazalen inguruan, baita azkazalen
azpian ere, esku nahiz oinetako
behatzetan. Tratamendua normale-
an kirurgikoki erauztea izan ohi da.
- * Garatxo seborreikoak. Gaine-
rantzeko garatxoak ez bezala,
zahardadeko "garatxo" hauek,
larruazaleko egitura desberdinak
keratina-pilaketak besterik ez dira;
kolore ilun edo beltzeko mantxak.
Beraz, birusekin zerikusirik ez du-
te. Tumore onbera hauek, ez dira
kutsakorrak, baina ez dira berez
desagertzen.



* **Pediatra.**